

BAKIOKO EUSKERA-4

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun!

Oarra: Era bitara dakrgruz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: "egin dodaz"
- Bakion zelan esaten dan: "(ein dxotés)"

Aditza izango da oraingo onetan ukutuko dogun gaia. Zeatzago esanda, aditz laguntzaileari begiratuko deutsogu. Aditz laguntzaileak, bada, aditz nagusiari lagunduten deuto, esaterako:

- Jonek **artu eban** artutekoa atzo. (*Jonék artú dxen/seuén ártutekoa atzó.*)

aditz nagusia: **artu** (*artú*)

aditz laguntzailea: **eban** (*dxen/seuén*)

Aditz laguntzailea jokatu egiten da, nagusia, ostera, ez. Aditz laguntzaie bi daukaguz euskeraz: IZAN aditz nagusi intransitiboakaz Doan, etorri,...) jokatuten dana eta UKAN aditz transitiboakaz (artu, eroan,...) jokatuten dana.

IZAN(NOR-orain/gero

Ni/Neu	(ni/néu)	naz	(nas)	ez naz	(enás)
i/Eu	(i/eu)	az	(as)	ez az	(eás/esás)
Zu/Zeu	(su/séu)	zara	(sará)	ez zara	(esará)
A/Bera	(a/berá)	da	(da/de)	ez da	(está)
Gu/Geu	(gulgéu)	gara	(gará)	ez gara	(eskará/egará)
Zuek/Zeuek	(stiek/séuek)	zaree	(sarle/saré)	ez zaree	(esaríe/esaré)
Areek/Eurak	(árek/áiek/éurek)	dira	(diré/dirés) (I)	ez dira	(estirélestirés)

(1) Edo oneek be bai: (*dié/diés*) - *festié/estiés*)

OARRA: egin (*chi, in*), jakin (*dxakín*), imini (*imíñi*), il (il), ibili (*ihillí*)... aditzokaz eta ezin (*esín*) berbeagaz urrengo oneexek entzuten dira: **da** (*dxa,dxe*), esaterako:

- Ori **imini da**, ez besterik. (*Orí imin dxe, es hésterik*)

- Leen **egin dala** esan dozu, ez da? (*Len in dxalá esán su, está?*)

IZAN (NOR-leen)

Ni/Neu	nintzan	(nit én)	ez nintzan	(en tzén)
I/Eu	intzan	(itzén)	ez intzan	(eitzén/iitzén)
Zu/Zeu	zintzazan/zinan	(sintzén/siñén)	ez zintzazan/zinan	(esintzén/esiñén)
A/Bera	zan	(sun/sen)	ez zan	(esán)
GulGeu	gintzazan/ginan	(gintzesánlgint en/giñén)	ez gintzazan/ginan	(eskintzesán/eskintzén/eskiñén)
Zuek/Zeuek	zintzazen/zinen	(sintzien/siñien)	ez zintzazen/zinen	(esintzien/esiñien)
Areek/Eurak	ziran	(sirén)	ez ziran	(es rén)

OARRA:Entzun, urrengo oneexek be entzuten dira:

ni nintzan (*nitzén/neitzén - enitzén/eneitzén*)

gu gintzazan (*gintxén/geiñén - eskintxén/eskeiñén/egiñén*)

zu zintzazan (*sintxén/seiñén - esintxén/eseiñén*)

zuek zintzazen (*seiñien - eseiñien*)